

AMA TITI

Atoz, atoz aitacho;
 etorri zaitia,
 ikusitzera gure
 Paulita maitia
 nola zaputuz eginda
 ez naubela uzten,
papella ta gañeko
pichiyak erazten.
 Begira zazu nola
 lurrian jiraka
 dabillen zikindubaz
 mantala ta *ñaka*.
 Atoz, ta deitu zaiza
 goiko alanbreri,
 beriala eraman
 dezala aur ori.
 Mariacho bezela
 besuan artuta,
 zulo illun batera
 zakuban sartuta,
 lurrian berriz orla
 ez deriyen etzan
 eta *mañikan* egiñ
 geyago ezdezan.
 ¿Zer dezu, izutuba
 zatoz ama gana,
 zikindu zeranian
 arrastaka dana?

¡Bai, bai, gorde zaitia
 amaren kolkuan
 orla, orla, eskubak
 estutu lepuan!
 Orañ etzaizu aitzen
 batere kinkikan,
 ezta ere lengoko
 asarre *mañikan*:
 ¡zu ezbañian gorde
 amaren besuan
 onezkero alanbrek
 eraman zinduan!
 Onla, laja nazazu
pichiyak erazten,
 ¡zer ederki dirazun
 farrez orañ uzten!
 Garbitutzera nua
 musucho polita,
 ¡utzi maite ez autsi
papelleko zinta!
 Garbi, garbi egin da
 berritik jaztian
 eta nere *pocholak*
 kolkotik eustian,
 nik kantatuko diyot
 Lolo eta Kuku,
 titichua artubaz
chuku, chuku, chuku.

V. IRAOLA.